

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Derioko Udala****Derioko udalerrian langabezian dauden pertsonak kontratatzeko laguntzen oinarrien eta deialdiaren onarpena.**

Azaroaren 9ko 721/2018 zenbakiko Dekretuz onartu da Derioko udalerrian langabezian dauden pertsonak kontratatzeko laguntzak arautzen dituzten oinarrien deialdia, 2018. urterako Derioko Udalaren Toki Enplegu Plana garatzeko asmoz. Oinarrian osoko bilkurak onartu ditu 2018ko azaroaren 8an egin duen bileran, eta hori guztiak argitaratzen dira.

Eskabideak aurkezteko epealdia irekitzen da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 2018ko abenduaren 10era arte.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Derion, 2018ko azaroaren 9an.—Alkatea

**DERIOKO UDALERRIKO LANGABETUAK KONTRATATZEKO
LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK****1. Helburua**

Laguntza hauen helburua da merkatu arrunteko enpresei diru-laguntzak ematea Derion erroldatuta dauden eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta dauden langabetuak kontratatzeke.

2. Pertsona onuradunak

Kontratatzeke laguntza hauen onuradunak izan daitezke enpresa, denda eta profesional guztiak, haien forma juridikoa edozein izanik ere, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak edo fundazioak ere.

Honako hauek ezin izango dituzte jaso diru-laguntzak:

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horiekin lotutako edo horien menpeko erakundeak.
- Enplegu zentro bereziak.
- Aldi baterako laneko enpresak, langileak beste enpresa bati aldi baterako laguntzeke kontratatu nahi badituzte.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan azarritako zirkunstantziaren batean dauden enpresak edo erakunde eskatzailleak.

2018ko Derioko Udalaren Enplegua sustatzeko Programak ematen dituen kontratatzeke laguntzak lortu nahi dituzten erakundeak legez eraturata egon beharko dira.

Erakunde bakoitzak gehienez 2 eskaera aurkeztu ditzake oinarri hauetan zehaztutako kontratatzeke laguntzetarako.

Onuradunek oinarri hauek arautzen duten laguntza-programa parte hartze duten aldi osoan bete behar dituzte baldintza horiek.

3. Kontratatzeke baldintzak

- a) Laguntza lortzeko, kontratazio guztiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Kontratazioa egiten denean, pertsona langabezian egotea eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaille gisa izena emanda egotea, Gizarte Segurantzako Erregimen orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Berezian alta eman gabe egotea. Lan eskatzaille dela ulertuko da Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaille gisa dagoena, Alta eta Eskararen Berritze (LEABD) agiriaren hori frogatzen duena, Enplegu Eskatzaille Gisa Alta izatea.
 - Gainera, kontratatutako pertsona Derion erroldatuta egotea etengabe 2018ko urtarrilaren 1 baino lehenago.
 - Ez zaie diru-laguntzarik emango enpresariarekin edo sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-organoetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duten ezkontideen, oinordekoen eta gainerako senideen kontratazioei.
 - Kontratuak gutxienez 3 hilabetekoak izango dira.
 - Kontratuak edozein kontratu motaren bidez formalizatu ahal izango dira kontratuak, prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua salbu.
 - Kontratuak lanaldiaren %100ekoak izango dira gutxienez.
 - Kontratazioak enplegu garbia sortuko du pertsona kontratatutak sartu aurreko 3 hilabeteetan enpresan egon den batez besteko plantilla osoaren gainean.
 - Diru-laguntzak lortu ditzakete 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 14ra bitartean formalizatu diren kontratuak.



- b) Pertsona bera kontratatzeagatik laguntza bat baino ez da emango, nahiz eta eskaera enpresa ezberdinek egin.
- c) Kontratazioak luzatu daitezke nahiz eta diru-laguntzaren epealdia amaitu, baina, epealdi horren geroko gastuek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso.

4. Aurrekontu-kreditua, finantzazioa, zenbatekoa eta ordainketa

Diru-laguntzak emateko zenbateko osoa 8.000 eurokoa izango da, 471000 Enplegua sustatzea. Enpresei diru-laguntza aurrekontu-kredituaren kontura.

Diru-laguntza bakoitzaren 2.000 eurokoa izango da gehienez, kontraturiko pertsona bakoitzeko.

Laguntzaren azken zenbatekoak ezin du gainditu kontratuaren soldata-kostuen %75a, kontratuaren amaierako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzaren kostuak barne.

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean emango dira, enpresa onuradunak diru-laguntza justifikatu ondoren.

Lan-kontratua kasu bakoitzean eskatutako edo diruz lagundutako gutxieneko aldia baino baino lehen eteten bada, emandako diru-laguntza itzultzea, etete hori erakunde kontratzailearen borondatez kanpoko arrazoiengatik sortu bada salbu. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da lan kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan. Azken kasu horretan, geratzen den tartean eta diruz lagundutako kontratazioa amaitu arte, enpresak kontratatutako langilearen ordezkari langile hori, zeinengatik diru-laguntza eskatu eta eman egin zen, eskatutako baldintzak eta ezaugarriak betetzen dituen beste langile bat kontratatu ahal izango du, betiere ordezkapena berehala egiten bada, hau da, gehienez biharamunean.

5. Bestelako diru-laguntzekiko edo laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan jasotzen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek kontzeptu eta helburu berberengatik ematen dituzten bestelako diru-laguntza edo laguntzekin. Nolanahi ere, diru-iturri desberdinetatik lortutako laguntza edo baliabideen zenbateko osoak ezingo du inola ere soldaten kostu gordina gainditi. Soldaten kostu gordina gainditzen bada, diruz lagundu beharreko zenbatekoa gutxituko da.

6. Eskaerak aurkeztea

Kontratatu nahi den pertsona bakoitzeko eskabide bat aurkeztu beharko da. Eskabidearekin batera errekeritutako dokumentazioa aurkeztuko da. Eta enpresa edo erakunde bakoitzak ezin du eskabide bi baino gehiago aurkeztu.

Laguntzaren eskaera, non eskatzaileak egiaztatuko duen oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, Alkateari bidaliko zaio, eta aurkeztuko dira dagokion deialdian jarritako epe barruan, Derioko Udalaren hiritarrei arreta bulegoan-Gertuan (Herriko plaza, 3):

- Astelehen, astearte, asteazken eta ostegun eta ostiralak 8:30etik 15:30era.
- Astearteak 8:30etik 18:00etara.

Eskabidea egingo da I. eranskina erabiliz, eta derrigorrez honako dokumentazio honenkin batera aurkeztuko da:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- Enplegu garbia sortzeko erantzukizun-adierazpena (II. eranskina).

Eskabidean dauden daturen bat faltatuz gero, dagokion zehapen-araubidearen menpe geratuko da eskatzailea.



7. Laguntza emateko irizpideak

Diru-laguntzak emango dira lehia-konkurrentziaren bidez, irizpide objektibo eta haztaren hauek kontuan hartuta:

- Sei puntu (6), enpresa kontratatzailea edo enpresa kontratatzailearen lantokia Derion baldin badago.
- Hiru puntu (3), enpresa kontratatzailea edo enpresa kontratatzailearen lantokia Txorierri eskualdeko beste udalerrietako batean badago (Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika edo Zamudio).
- Bi puntu (2), emakumeengatik.
- Puntu bat (1), 35 urtetik beherakoengatik.

Parte hartzaileek lortutako puntuazio osoa lehiaketa-fasean. Puntuazioan berdinketa izanez gero, lehentasuna izango dute emakumeen eskaerek, eta bigarrenean Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan langabezi gisa antzintasun handiago duenak (Lanbideko lzena emanda egondako aldiei buruzko ziurtagirian dagoen azken data erreferentzi gisa hartuta), eta puntuazioan berdinketa jarraituz gero, adin gehiago duen pertsonak izango du lehentasuna.

8. Laguntza emateko prozedura

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emango dira lehia-konkurrentziaz emango dira objektibotasun, berdintasun eta publizitate printzipioen arabera.

Diru-laguntzak emateko prozedurari hasiera emango dio Udalak ofizioz. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, Egaz- Txorierri aldez aurreko fase bat irekiko du aurkeztu diren eskaerak eta dokumentazioa aztertzeke, eta horiek oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeke.

Eskabideak ez badira termino guztietan behar bezala betetzen edo ez bazaie derri-gorrezko dokumentazioa eransten, pertsona edo erakunde eskatzaileari dei egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo eskatutako agiriak eraman ditzan, ohartaraziz horrela egin ezean, berak egindako eskaera ezetsi egingo dela eskaera horren inguruan beren-beregi ebatzi eta berorren berri emanez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera.

Espediente osoa, eskabideen zerrendarekin batera, egindako jarduketak hartuta eta 7. puntuan ezarritakoaren arabera emaitza hartuta, bidaliko zaio Udalaren Idazkaritzari, eta horrek egindakoa ikusita, organo erabakigarriari behin-behineko ebazpen-proposamena formulatuko dio. Ebazpen-proposamena jakinaraziko zaie interesatuei, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak egin ditzaten. Hala ere, Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango, baldin eta pertsona edo erakunde interesdunek aurkeztutako egitateak eta alegazioak baino ez badira agertzen prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen; horrela gertatuz gero, egindako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

9. Ebazpena

Alkate andreak ebatziko du eta ebazpen-proposamenaren arabera diru-laguntza nori esleitu zaion eta nori esleitu ez zaion informazioa emango du, gehienez sei hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita, ebazpenak eskatzaileen identifikazioa jasota. Atzera bota direnak behar bezala arrazoituta egongo dira, eta diru-laguntzen esleipenek adierazi beharko dituzte laguntzaren helburua eta zenbatekoa adierazi beharko dituzte.

Ebazpen horren berri emango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua arabera.

10. Justifikazioa eta itzultzeko eskubidea galtzea

Onuradunak, diru-laguntzaren helburua justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar du, kontratua amaitzen denetik hilabetera arte edo diru-laguntza jasotzen denetik



hilabetera, baldin eta diru-laguntza ematen den egunean diru-laguntzaren xedea amaituta badago. Dena den, froga-agiriak aurkezteko azken eguna izango da 2019ko apirilaren 30ean.

Aipatutako dokumentazioa ikusita, organo erabakigarriari honakoa proposatuko zaio: obligazioen onarpena eta bakoitzari dagokion zenbatekoa ordaintzea. Halaber, eskatu daitezke araketa jarduketak eta beharreko kontrola, segimendu eta kontrol jarduketak errazteko asmoz. Frogagiriak ez aurkeztearen ondorioa, frogagiri nahikoak ez aurkeztearen ondorio edo Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoa ez betetzearen ondorioa izango da diru-laguntza kobratzeko eskubidea galtzea.

Lan-kontratua diruz lagundutako aldia baino baino lehen eteten bada, diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da edo emandako diru-laguntza itzuli beharko da, etete hori erakunde kontratatzailearen borondatez kanpoko arrazoiengatik sortu bada salbu. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da lan kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan. Kobratzeko eskubidea aitortzeko prozedura izango da Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Erakunde interesdunek oinarri hauetako III. eranskinean jasotako ereduari jarraikiz justifikatu behar dute kontratazioa. Era berean, dokumentazio hau aurkeztu behar dute

- Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia.
- Diru-laguntza jasoko duen kontratuaren kopia.
- Nominak, langileen izen-zerrenda (garai bateko TC1) eta kotizazioen likidazio-agiria (garai bateko TC2), jasotako laguntza justifikatzeko.
- Zinpeko adierazpena, adierazten duena kontraturiko pertsona ez dela enpresariarekin edo enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea edo ahaidea (IV. eranskina).
- Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak bestelako finantziatorik ez duela egiaztatzen duen agiria (V. eranskina).
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan egon den batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDOk emandakoa.
- Kontratazioaren egunean bertan egon den batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDOk emandakoa.
- Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duen hirugarrenen altaren fitxa (VI. eranskina).
- Memoria laburtua, txantilo ofizialean (VII. eranskina).
- Eskatzen zaion beste edozein agiri.

11. Erakunde onuradunek bete behar dutena

- Oinarri hauetan eskatutako baldintza guztiak betetzea.
- Laguntza honen kargura jasotako diru-laguntzen inguruan eta fiskalizazio-funtzioak betetze aldera eskatzen den informazioa ematea Derioko Udalari. Derioko Udalari.
- Oinarri hauetako kontzeptu berberengatik enpresak jaso dituen beste laguntza bazuen berri ematea Derioko Udalari. Enpresak beste laguntzaren bat jaso badu ere, bat etorri ahalgo da laguntza honekin, baina jasotako beste edozein diru-laguntzak ordaindu ez dituen gastuetarako soilik emango da diru-laguntza.
- Unean-unean jakinaraztea adostutako baldintzak aldatu direla edo kontratatu ondoren arazoren bat dagoela jakinarazi Derioko Udalari.

**12. Arau-haustek eta zigorrak**

Arau-hauste eta zigorren erregimena izango da Derioko Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza orokorrak ezartzen duenaren arabera, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren arabera eta 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Araudiararen arabera.

13. Datuen babesa

Diru-laguntzaren eskaera aurkeztearekin, erakunde eskatzaileak bere adostasuna ematen du, eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela aitortzen du, eta horiek termino guztiak onartzen dituela aitortzen du. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Derioko Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartzen direla automatikoki, Enplegu Arloko jarduerak kudeatzeko helburua izaten.

Diru-laguntza eskabideak aurkezteak dakar datuen lagapena edo komunikazioa bes-telako Administrazio Publikoari edo hirugarrenei, aipatutako legearen arabera, eta baita berriazko baimena ere Derioko Udalak horien tratamendu egin ditzan, beti aurrean adierazitako helburuak betetzeko.

14. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan zehazten ez dena Derioko Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrak adierazitakoari jarraituz araupetuko da, eta baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak adierazitakoari ere jarraituz.

15. Publizitatea eta indarrean jartzea

Oinarri hauek argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta deialdia erregistratuko da Diru-laguntzen Nazio Datu Basean, erakunde horrek deialdiaren laburpena bidaliko dio Bizkaiko Aldizkari Ofizialera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17., 18. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera, nahiz eta oinarriak eta deialdia udalaren Web-ean argitaratu. Eta indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean.

Halaber, deialdiaren ebazpena argitaratuko da Diru-laguntzen Nazio Datu-basean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikulua araberaren eta uztailaren 21eko Errege Dekretuaren 30. artikulua araberaren arabera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onartzen duena, eta Udalaren Web-ean ere argitaratuko da..

AZKEN XEDAPENA**Azken Xedapen Bakarra**

Erregistro Orokorraren bidez izapideturiko eskaerak adierazten du oinarri hauek onartzen direla

Derion, 2018ko azaroaren 8an.



I. ERANSKINA

ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERA»

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo en-
presaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:;
udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi or-
dezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

- I. Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan kontratatze laguntzen proiektuak arautzen dituzten oinarri berrietako edukiaren berri izan du.
- II. Ordezkatzen duen erakundeak oinarriek eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu, eta horietan adierazitako betebeharrak guztiak beren-beregi onartzen ditu.
- III. Oinarri horiekin bat egiteko eskaera egiten du, honako ezaugarri hauek dituen kontratazioa diruz laguntzeko:
 - Lanpostua ¹:
 - Kontratu-mota:
 - Hasiera-data:
 - Kontratuaren iraupena:
 - Jardueraren sektorea:

¹ Adierazitako lanpostuak bat etorri behar du lan-kontratuan adierazitako lanpostuarekin.

- «Enpresak parte hartzeko eskaera» honekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:
- Enpresaren IFKren kopia.
 - Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskrittura.
 - Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
 - Derioko Udalaren Tokiko Enplegua Sustatzeko 2018ko Programan parte hartzeko deialdian aurkeztutako kontratazioekin enplegu garbia sortzeko eskakizunak beteko direla dioen erantzukizun-adierazpena (II. eranskina).

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



II. ERANSKINA

ENPLEGU GARBIA SORTZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAN» AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOEKIN ENPLEGU GARBIA
SORTZEKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DIRELA DIOEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo en-
presaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:;
udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi or-
dezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Oinarrietan araututako laguntzak eskatzen dituen kontratazioak enplegu garbia sortuko du diruz laguntzen diren kontratuak izango dituzten pertsonak sartu aurreko 3 hilabeteetan enpresan egon den batez besteko plantilla osoaren gainean.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



III. ERANSKINA

EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEKO EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERARI» DAGOZKION EGIAZTAGIRIEN AURKEZPENA

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo en-
presaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:;
udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi or-
dezkaritza-ahalmenak),

Honako agiri hauek ere aurkeztu dira:

- Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia.
- Diruz lagunduko den kontratuaren kopia.
- Nominak, langileen izen-zerrenda eta kotizazioen likidazio-agiria, jasotako laguntza justifikatzeko.
- Zinpeko deklarazioa, adierazten duena kontraturiko pertsona ez dela enpresariarekin edo enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea edo ahaideta (IV. eranskina).
- Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak bestelako finantziatorik ez duela egiaztatzen duen agiria (V. eranskina).
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan egon den plantillaren batezbestekoaren egiaztagiria, GSDOk emandakoa.
- Kontratazioaren egunean bertan egon den batez besteko plantillaren egiaztagiria, GSDOk emandakoa.
- Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duen hirugarrenen altaren fitxa (VI. eranskina).
- Memoria, txantilo ofizialaren arabera egina (VII. eranskina).
- Eskatzen zaion beste edozein agiri.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



IV. ERANSKINA

AHAIDETASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO PROGRAMAREN
DEIALDIAN AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOETAN AHAIDETASUNIK EZ EGOTEAREN
ESKAKIZUNAK BETETZEN DIRELA DIOEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo en-
presaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:;
udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi or-
dezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Oinarrietan araututako laguntzak eskatzen dituen kontratazioaren xede den pertsona ez da sozieta-
te-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo admi-
nistrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen
ezkontidea, oinordekoa edo ahaidea, eta ez da, halaber, adierazitako beste pertsona horietako inor.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



V. ERANSKINA

BESTELAKO FINANTZAZIORIK EZ DAGOELA DIOEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO PROGRAMARAKO «ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAN» ADIERAZITAKOAZ BESTELAKO FINANTZAZIORIK EZ DAGOELA DIOEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo en-
presaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:;
udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi or-
dezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

«Enpresak parte hartzeko eskaeran» adierazitako kontratazioari dagokionez, ez dago eta ez da egon-
go bestelako finantziatorik edozein arrazoi dela eta. Bestalde, adierazpen honen xede diren alderdie-
kin lotutako edozein gorabehera beren-beregi eta idatziz adierazteko konpromisoa hartzen du.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VI. ERANSKINA
HIRUGARRENEK ALTAREN FITXAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAN» ADIERAZITAKO BANKU-KONTUAREN
ZENBAKIAREN TITULARTASUNA EGIAZTATZEN DUEN HIRUGARRENEK ALTAREN FITXA

Hartzekodunaren agiria
Ficha Acreedor

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora
Izena eta deitura bi edo Sozietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social
Helbidea / Domicilio:
Herria / Población, Probintzia / Provincia, PK / CP
NAN - IFK / DNI - CIF, Telefonoa / Teléfono, Faxa / Fax
e-mail
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura / Firma de la parte acreedora o apoderada

Banka helbideratzeak / Domiciliaciones bancarias
1. Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zergaren sarrera edo itzulaketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea:
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto.
IBAN kodesa / Código IBAN
Herria / Población, Probintzia / Provincia, PK / CP
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria
2. Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zergaren sarrera edo itzulaketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea:
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto.
IBAN kodesa / Código IBAN
Herria / Población, Probintzia / Provincia, PK / CP
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria

Agiri hau alta edo aldatzearen bidez bakarrik erabiliko da. / Este documento se utilizará únicamente en los casos de alta o modificación.
NANaren edo IFKaren fotokopia erantsi behar da. / Debe adjuntarse fotocopia del DNI o en su caso del CIF.
Bi kontu baino gehiago duen hartzekodunak izatekotan, erantsi beste inprimaki bat. / Caso de parte acreedora con más de dos cuentas añadir otro impreso.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoak betetz, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuek ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzunala edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu.
En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley.

2014

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VII. ERANSKINA

AZKEN MEMORIAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAKO» AZKEN MEMORIA

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua